

Xabier

Etxeita



Argazkien kokapena: Zornotzako Larrea auzoa

Zure janari gustukoena zein da?

Zorionez pasta gustatzen zait. Hemen askotan jan behar dugu eta ez balitzait gustatuko jai izango nuke.

Larunbata da, gaueko hamarrek, hain zuzen ere. Jaia egin edo etxean geratu pelikula bat ikusten?

Ez bata ez bestea. Egia esan behar baldin badut, ordurik hobere-na da hori partida bat jokatzeko, nire ustez. Askok gustatzen zait larunbata batean gaueko hamarretan partida izatea. Honen ostean lagunekin buelta bat ematea oso ongi dago. Beraz, lehenik futbola eta gero bueltatxo bat eman.

Zein da zure erreferentziako jokalaria gaur egun?

Jokalaria asko daude, egia esan. Aurten Milaneko Paolo Maldini erretiratu da, eta asko gustatzen zait jokalaria hau. Erreferente on bat da edonorentzat jokalaria hau.

Txikitatik zenuen gustuko Paolo Maldini?

Ez, ez. Txikia nintzenean Athleticeko jokariak ziren nire erreferentzia nagusia. Julen Guerrero bera, edota nire taldekidea den Joseba Etxeberria ziren nire jokari gustukoena.

Gehiago ligatzen al da Lehen mailako jokalaria izanik?

Ez, ez! (barreak) Egia esan, ez dut ateratzeko denborarik izan, eta oso pozik nago daukadan neskarekin.

Zein talderi ezin izango zenioke ezetz esan?

Athleticeri (barreak berriro). Nire ametsetako taldea izan da eta behin hemen egonda, hau ametsa da niretzako. Ezinezkoa egingo litzaidake Athleticeri ezetz esatea.

Nor da jokalaria zailena defendatzeko?

Niretzat, Diego Forlan izan da zailena. Oso arina da eta zaila kubritzeko. Orain arte, gehien kostatu zaidana hau izan da.

Xabier Etxeita bere lekua aurkitzen ari da Joaquin Caparrosen taldean pixkanaka. Amorebietako gazte honek, Bilbao Athleticen fitxa izan arren, aurtengo denboraldian 978 minutu jokatu ditu Liga txapelketan, berak hasieran espero zituenak baino dexente gehiago. Laugarren atzelari bezala iritsi zen lehen taldera, baina Ustaritzek izandako lesioak zirela eta, hainbat partidatan titular bezala agertu da, oso lan fina eginez, gainera.

Athletic Club.- Zer balorazio egingo zenuke aurtengo denboraldiaz? Pertsonalki lehenik eta behin, eta taldearekin bigarrenik.

Xabi Etxeita.- Aurtengo denboraldia oso ona izan da niretzako. Denboraldiaurrea Bilbao Athleticekin hasi nuen eta ez nuen inolaz espero lehen taldearekin hain laster debuta egitea, eta are gutxiago, azkenean, hainbeste partida eta minutu jokatzeara. Taldea ere ongi ibili da aurten. Kurtsoa bukatu baino hilabete lehenago mailari

eustea lortu dugu, eta batez ere Kopako finalera iristea oso handia izan da. Beraz, balorazio positiboa egiten dut aurtengo lanaren inguruan.

AC.- Joaquin Caparrosek taldearekin entrenatzera joatea eskatu zizunean lehenengo aldiz, zer nolako sentsazioak izan zenituen?

XE.- Niri sekulako ilusioa egin zidan. Beti izan da nire amets handiena lehen taldearekin jokatzeara eta berri ezin hobea izan zen niretzako.

“Nire helburua da lehen taldeko fitxa izatea, eta hurrengo denboraldiaren erronka nagusia da aurtengo zenbakiak hobetzea”

AC.- Eta, lehenengo aldiz San Mamesera salto egin zenuenean?

XE.- Sentsazio oso berezia da, oso zaila da azaltzea. Txikitatik hainbeste aldiz bertan egonda beti pentsatu izan dut, eta egunen batean niri tokatuko balitzait, nolakoa izango zen momentu hori? Eta bat batean zure izena bozgorailutik entzun eta zelaira saltatzean, pentsatutako guzti hori berehala kentzen zaizu burutik. Ahalik eta lasterrren sartu behar zara partidaren aurrera ateratzeko. Zure aurkaria aurrean ikusten duzu eta gauzak ahalik eta hoberen egitea bakarrik duzu buruan.

“Sentsazio oso berezia izan zen San Mameseko zelaira lehen aldiz salto egin nuenean, oso zaila da azaltzea”

AC.- Baina 38.000 ikuslek derrigorrez inpresionatu behar du, ez? Esan nahi dut, gauza bat da entrenatzea eta beste bat hainbeste pertsonen aurrean partida bat jokatzeko...

XE.- Bai, bai, benetan izugarria da. Askok inpresionatzen du. Batez ere zaleen txaloak entzuten dituzunean. Egia esan, oso zaila da momentu hori azaltzea. San Mameseko zelaira salto egin eta hainbeste jende ikusten duzu animatzen...

AC.- Hitz egin dezagun zure lehenengo golaz. Atletico Madrili sartu zenion, eta non eta Katedralean. Poz pozik egoteko modukoa da, ez? Zer esan dizute lagunek?

XE.- Athleticekin jokatzeko eta gainera gola egitea oso emozionantea izan zen niretzat. Gainera, nire lagun guztiak zeuden zelaian eta haien aurrean sarea zulatzea, inoiz ahaztuko ez dudan zerbait da. Egia esan oso hunkituta aterantz nintzen.

AC.- Hau izan ahal da zure kirol ibilbideko golik garrantzitsuenak?

XE.- Ba, seguru aski ere garrantzitsuenak izan da, bai. Bat edo beste sartu ditut nire karreraren zehar, baina Athleticekin gola sartu izana oso inportantea da niretzako. Nire ustez gehien emozionatu nauena izan dela, hori bai.

AC.- Gaztetan, Amorebieta futbol taldean ibili zara jokatzeko. Zer oroimen daukazu garai hartaz?

XE.- Oso oroimen polita, egia esan. Lagunekin jokatzeko zenuen garaia zen, eta oroimen ezin hobekak ditut. Gainera, asko ikasi dut bertan. Entrenatzaile asko eta desberdinak izan ditut urte ezberdinetan, eta bakoitzak asko erakutsi dit. Oso eskertuta nago ni Amorebieta taldearekin, asko zor diet.



%10 DESKONTUA

Y TE APUNTAS A bai & boy -N MATRIKULATUZ GERO

BILBAO / 94 470 18 57 / ALDA, URKIUO 22
GETXO / 94 491 50 60 / AVDA. ALCORTA 76 8
www.bai&boy.com

SI ERES SOCIO DEL ATHLETIC -EN BAZKIDEA BAZARA

Y TE APUNTAS A bai & boy -N MATRIKULATUZ GERO

OFERTA VALIDA SOLO PARA SOCIOS Y FAMILIARES DIRECTOS. PRECEDIENDO EL CARNE DE SOCIO Y ESTA VAL. E.

AC.- Bertan hainbeste urtetan ibili ondoren, Bilbao Athleticekin kontratua sinatu zenuen. Baina, zer da zuretzako Athletic Club?

XE.- Niretzako Athletic dena da. Beti izan naiz Athleticekoa eta betidanik joan izan naiz zelaira esan dizudanez. San Mamesera joateko ilusio hori ez zait inoiz ere kendu. Esan beharra daukat, lagunen artean hitz egiteko gai garrantzitsuena izan dela beti Athletic.

AC.- Hemen ikusten ahal duzu zure burua etorkizunean? Zer espero duzu hurrengo urterako?

XE.- Ez dakit, horretarako egiten dut lan egunero, hemen geratzeko. Nire helburua da hurrengo urtean zenbaki bat eskuratzea, hau da, lehen taldeko fitxa izatea. Jokalari bat beti ibili behar da pentsatzen bere zenbakiak hobetu behar dituela, eta hori da nire hurrengo urterako erronka nagusia. Alde batetik tokia bilatzea eta bestetik, zenbakiak hobetzea.

“Taldeak arreta jartzen badu eta gogo handiz hartzen baldin badu UEFA Txapelketa, finaleraino iritsi gaitzke”

AC.- Denborarik izan duzu Bartzelonaren partidak ikusteko? Ikusi ahal zenuen ‘Champions Leagueko’ finala?

XE.- Bai, nola ez. Nire ustez, partida horretan erakutsi zuen Barcelonak Europako talderik onena dela. Aurtengo denboraldian Chelsea izan da aurre egiteko gai izan den bakarra,



baina talde katalanuniarra da hobere-na, dudarik gabe. Mestallako Kopako finalean ere argi eta garbi utzi zuen bera izan zela bi taldeen artean onena.

AC.- Zure iritzi, kapaza izango al da Athletic Club hurrengo denboraldian ibilbide ona egiteko ez bakarrik Ligan eta Kopan, UEFA Txapelketan ere?

XE.- Bai, zergatik ez? Hasieran, talde ezezagunak izango ditugu aurkari bezala UEFAn, baina kontu askorekin ibili behar dugu. Taldea arreta jartzen badu eta gogo handiz hartzen baldin badu txapelketa, paper on bat egiteko gai da. Nire ustez, finaleraino iritsi gaitzke. ■

■ A mejorar los registros de este año ■

Xabier Etxeita ha vivido un sueño con su debut en Primera División con el equipo de su alma, el Athletic Club. En total, el defensa de Amorebieta ha disputado 978 minutos en Liga y otros 22 en Copa, lo que suman un total de mil minutos jugados con la camiseta rojiblanca. Etxeita tampoco olvidará las sensaciones que le produjo saltar al césped de San Mamés por primera vez, escuchar su nombre por los altavoces, ni su primer gol en Liga, logrado ante el Atlético de Madrid. Su próximo objetivo es tener ficha con el primer equipo y, como reto personal, se marca mejorar los números de la última temporada.